


# ETXEBIZITZA BERRIA


## EROSTEKO DEKALOGOA



ETXEBIZITZA BERRIA EROSTEKO  
ASMOA IZANEZ GERO ONDOKO  
HAU JAKIN BEHARREAN ZAUDE:

### Etxebizitzari buruz

 Etxebizitzaren deskribapen orokorra, etxea, esparru amankomunak eta zerbitzuak.


 Material eta instalazioen kalitatea: ur-hornikuntza, gas eta elektrizitate-sareak, sutearen aurkako neurriak, berogintzarako instalazioa etabar.

 Etxearen eraikuntzaren ezaugarri zehatzak.




### Kontratuari buruz

 Notaria aukeratzeko eskubidea.

 Etxebizitza eraikitzeo jarritako epea edota eraikuntza amaitzekoa betetzen ez bada, erosleak uko egin eta sarrera bezala emandako dirua itzultzeko eska dezake. Enpresak derrigorrez itzuli behar dio diru hori, %6ko interesa urteko gehituz.

 Etxea emateko epea eta eraikitzeo fasea.

 Arkitektoaren izena eta helbidea.

 Askotan etxebizitza saltzen duen higiezin agentziak esaten dio erosleari datu horiek etxegileari eskatzeko. Agentziak ez du halaberrez kontsumitzaileari informazioa eman behar, baina **BAI** informazio hau **eskura izan**. Arautegiak eskatzen duen informazio guztia eduki, honen egitasuna begiratu eta erosleak jasotzeko duen eskubidea adierazi behar dio interesatuari. Higiezin Jabetzarako Eragileak (H.J.E.) arautegia bermatu behar du baita, profesionalki eta kontsumitzaileari zuzenduta, etxebizitzak eskaini eta publizitatzen dituen edonork ere.

### Etxebizitzaren salneurriari buruz



**N**ahi izanez gero, etxegileak banku edo aurrezki-kutxa batekin hitzartu duen kredituaz jabe ala subroga dezakezu. Hala bada, kredituaren datu guztiak jakin beharko zenituzke: notaria, hitzarmenaren data, Jabetzaren Erregistroan jarritako datuak, hipoteka-erantzunkizuna, epemuga eta maileguaren baldintzak.

**E**petan ordaintzeko baldintzak (interesak, epemugak, ordaintzeko erak eta bermeak).

**E**txebizitzaren salneurri osoa, merkatal eragilearen ordainsariak eta B.E.Z.a barne.

257/83 Dekretuaren, 515/89 Errege-Dekretuaren, 57/68 Legearen, Kontsumitzailearen Estatutuari buruzko 10/81 Legearen eta Kontsumitzailea eta Erabiltzailea defendatzeko 26/84 Lege Orokorraren arabera.

### INFORMAZIO HAU GUZTIA IZAN BEHAR DU NAHITAEZ ESKURA:

**E**txegileak, promotoreak, higiezin agentziak eta etxebizitzak eskaini eta publizitatzen dituen edonork, nahiz eta beste entitateren batek sustatu, beti ere, profesionalki eta kontsumitzaileari zuzenduta.